

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4259

EBAZPENA, 2021eko ekainaren 16koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez lankidetzak-erakundeei laguntzak ematen baitzaizkie, 2021. urterako genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatzeko.

Martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuak (2018ko apirilaren 9ko EHAA, 67. zk.) lankidetzak-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketako prozesuak sustatzeko.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2021eko martxoaren 11ko Ebazpenaren bidez (2021eko martxoaren 25eko EHAA, 60. zk.), lankidetzak-erakundeei laguntzak emateko deialdia egin zen, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketaren prozesuak 2021. urtean sustatzeko.

Ikusi da deialdia egiteko ebazpenaren 5. artikulua bidez hartarako izendatutako hautaketa-batzordeak laguntzak emateko egindako proposamena. Egin ditu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinatzeko Zerbitzu Teknikoak laguntza-eskabideen balorazioa eta azterketa teknikoak. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2021eko martxoaren 11ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak ematea. Laguntza horiek ebazpen honen I. eranskinean jasotako erakundeei emango zaizkie, eranskin horretan aipatzen den kopuruan eta eran.

Bigarrena.– Baztertzea II. eranskinean ageri diren erakundeei aurkeztutako eskaerak, eranskinean adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Dirulaguntzak ezestea III. eranskinean ageri diren erakundeei, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Laugarrena.– Ebazpen hau erakunde interesdunei jakinaraztea.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Seigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zenetik hiru hilabete igaro eta ebazpenik ez bada eman, ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekita egongo da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 16a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2021eko abuztuaren 2a, astelehena

I. ERANSKINA
DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Helburua	Puntuak	Dirulaguntza (eurotan)
GBA-2021BA/0009	Asociación CEAR-Euskadi	Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	79,15	37.445,27
GBA-2021BA/0005	Fundación Paz y Solidaridad de Euskadi	Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	71,66	28.124,96
GBA-2021BA/0012	Asociación Mugarik Gabe, Organización No Gubernamental de Cooperación para el Desarrollo	Genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa prestatzea	88,65	14.480,19
GBA-2021BA/0013	Fundación Oxfam Intermon	Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren Inplementazioa eta haren Ebaluazioa	86,14	40.000,00
GBA-2021BA/0015	Fundación Alboan	Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren Inplementazioa eta haren Ebaluazioa	85	39.572,08
GBA-2021BA/0014	Medicus Mundi Álava-Araba	Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren Inplementazioa eta haren Ebaluazioa	74,8	39.563,03
GBA-2021BA/0006	Bizilur, Asociación para la cooperación y el desarrollo de los pueblos	Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren Inplementazioa eta haren Ebaluazioa	74	19.294,65

2021eko abuztuaren 2a, astelehena

II. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKAERAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Baztertzeko arrazoia
GBA-2021BA/0008	Cruz Roja Española	100 puntutik 50eko puntuazioa ez gainditzeagatik, 10.artikuluak jasotzen duen bezala
GBA-2021BA/0016	Brigadas Internacionales de Paz	100 puntutik 50eko puntuazioa ez gainditzeagatik, 10.artikuluak jasotzen duen bezala
GBA-2021BA/0003	Asociación Mugen Gaietik Org. No Gubernamental para la Ayuda y Cooperación para el Desarrollo con países del Tercer Mundo	100 puntutik 50eko puntuazioa ez gainditzeagatik, 10.artikuluak jasotzen duen bezala

III. ERANSKINA
ESKAERA EZ-ONARTUAK, DIRU-FUNTSAK AGORTZEAGATIK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Helburua	Puntuak
GBA-2021BA/0004	España con ACNUR	Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	66,66
GBA-2021BA/0007	Asociación para el desarrollo Foro Rural Mundial	Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	66,66
GBA-2021BA/0010	Fundación Economistas Sin Fronteras	Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	59,66
GBA-2021BA/0011	Entreamigos – Lagun Artean	Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikokoaren Implementazioa eta haren Ebaluazioa	66,5
GBA-2021BA/0002	Fundación Mundubat-Mundubat Fundazioa	Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikokoaren Implementazioa eta haren Ebaluazioa	56
GBA-2021BA/0001	Asamblea de Cooperación por la Paz	Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikokoaren Implementazioa eta haren Ebaluazioa	50